BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Acción Social

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia G02 Diputación Foral de Bizkaia D02
15 OCT. 2014
Zk/Nº 95301
Irteera / Salida

Bilbon, 2014ko urriaren 15ean.
En Bilbao, a 15 de octubre de 2014

Doña Miriam González Bermúdez Andrea
**La Salle Ikastetxearen IGEren Idazkaria**
**Secretaria de la APA del Colegio La Salle**
Av. Madariaga, 67
48014 BILBO BIZKAIA

Andre agurgarria:

Urriaren 6an bidali zenuten idazkia 2014ko urriaren 9an sartu zen Gizarte Ekintza Saileko erregistroan. Idazkiari dagokionez, berretsi egiten dizuet irailaren 25eko bileran azaldu nizuena.

Hau da, mendekotasunak dituzten pertsonei arreta hobea emateko Gizakia fundazioarekin batera egiten ari garen proiektuan, ez dugu aurreikusten gainbegiratutako ez kontrolatutako kontsumorik, substantzia sorgorgarriei dagokienez, erakunde horren establezimenduan (Madariaga etorbidea, 63, Deustu).

Hala ere, adierazi nahi dizuet benetan sentitzen dudala sortu den alarma soziala, oraindik ere badirauena, nahiz eta ordezkatzen dudan erakundeak eta Gizakia fundazioak berak informazioa behin eta berriro ezeztatut.

Horrez gainera, irailaren 25eko bilera horretan agindu nuen bezala, laster -urria amaitu baino lehen- bilera batera dei egingo dizuet; ziur aski, Deustuko Madariaga etorbideko 63. zenbakian dagoen establezimenduan egingo dugu. Bileran, mendekotasunak dituzten pertsonen arreta hobetzeko proiektuaren xehetasunak azaldu nahi dizkizuet. Gizakia Fundazioarekin batera lanean dihardugu proiektu horretan, eta hobekuntza hori erakunde horrekin adostuta daukagun zerbitzuaren garapen natural gisa ikusten dugu. Aurkezpen hori egun batzuk atzeratzeko arrazoia proiektuaren aspektu teknikoak amaitzea da, behar duzuen

Estimada Sra.:

Con relación a su escrito de fecha 6 de octubre y registro en este Departamento de Acción Social 9 de octubre de 2014, tengo a bien reiterarles lo que ya expliqué, personalmente, en la reunión que mantuvimos con ustedes el pasado día 25 de septiembre.

Es decir, que no contemplamos realizar consumos supervisados ni controlados de sustancias estupefacientes en el proyecto que estamos elaborando junto con Fundación Gizakia, para una mejor atención de las personas con adicciones en el establecimiento de esta entidad sito en la Avenida Madariaga, nº 63, de Deusto.

Sin embargo, quiero decirles que lamento profundamente la innecesaria alarma social generada, que parece mantenerse, pese a los reiterados desmentidos de la institución a la que represento y de la misma Fundación Gizakia.

Además, les informo que, tal y como prometí en la precitada reunión del 25 de septiembre, en breve, antes de finalizar este mes de octubre les convocaré a una reunión –que previsiblemente se celebrará en el establecimiento situado en Avenida Madariaga, nº 63-, con la finalidad de explicarles los pormenores del proyecto de mejora en la atención a personas con adicciones, que nos encontramos trabajando con Fundación Gizakia y que prevemos llevar a cabo en su establecimiento de Deusto, como una evolución natural del servicio que actualmente tenemos convenido con dicha entidad. La razón de retrasar unos días dicha presentación no es

informazio guztia eskaini ahal izateko.

más que la necesidad de acabar de cerrar los aspectos técnicos del proyecto y poder ofrecer así toda la información que precisen.

Azkenik, eskatzen dizuet kontuan hartzeko, alde batetik, azken 30 urteetan Gizakia fundazioa egiten ari den lan garrantzitsua, mendekotasunak dituzten pertsonei arreta ematen; eta, beste alde batetik, administrazio publikoen erantzukizuna, herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko gizarte-zerbitzuen prestazioa emateko. Horregatik, eskatzen dizuet zuen laguntza eskaintzeko Gizakia fundazioari eta ordezkatzen dudan erakundeari, zabaldu den berria ezeztatzen eta aspektu positiboak azpimarratzen. Izan ere, aspektu positibo asko ditu behar duten pertsona guztiei kalitatezko gizarte-zerbitzuen prestazioa emateak.

Y, finalmente, les ruego, una vez más, que tengan en cuenta la importante labor desarrollada desde hace 30 años por Fundación Gizakia en el ámbito de la atención a las personas con adicciones y la responsabilidad de las Administraciones Públicas en la prestación de servicios sociales para la mejora de la calidad de vida de todos los ciudadanos y ciudadanas. Por eso, les ruego que colaboren tanto con Fundación Gizakia como con la institución a la que represento en la difusión del desmentido y de los aspectos positivos, que son muchos, de la prestación de servicios sociales de calidad a todas las personas que los necesiten.

Besterik gabe, adeitasunez, agur.

Sin otro particular, le saluda atentamente,

**MARÍA PILAR ARDANZA URIBARREN**
**GIZARTE EKINTZA SAILAREN FORU DIPUTATU ANDREA**
**DIPUTADA FORAL DEL DEPARTAMENTO ACCIÓN SOCIAL**



BFA DFB